

## Oporrak lagunekin.mp3

### Olaia

Kaixo. Olaia naiz. Nik hamazazpi urte nituen lehenengo aldiz lagunekin oporretara joan nintzenean. Kuadrilla osoa (zortzi lagun) Saloura joan ginen lagun baten gurasoen apartamentura. Autobusez joan ginen Aste Santuko oporretan. Hondartza bertatik bertara genuen, eta oso eguraldi ona egin zuenez, egun osoa han ematen genuen. Gauean sekulako giroa zegoen eta parrandak ere egin genituen. Primeran ibili ginen!

### Aritz

Hepa, Aritz dut izena. Lagunekin egin nuen lehenengo irteera 18 urterekin izan zen, eta Pirinioetara joan ginen astebete pasatzera. Motxilak eta kanpin-denda hartu genituen, eta han abiatu ginen lagunok furgoneta batean. Zurizako kanpinean jarri genuen kanpin-denda, eta handik mendi-irteerak eta zeharkaldiak egin genituen. Haietako batean, hiru egunez bibak egin genuen, eta lehenengo aldia zen. Izugarria da mendian zeru izartua ikustea! Zer ondo pasatu genuen!

### Malen

Aio, lagunak; Malen naiz. Bada, nik aurten egin ditut lehenengo aldiz oporrak lagunekin. Lau lagun gara, hogeita hiru urte ditugu eta ikasketak aurten bukatu ditugu. Udaberrian, Interrail-txartela atera genuen, eta udan Europan barrena ibili ginen: Parisen, Amsterdamen eta Berlinen. Hiri zoragarriak iruditu zitzaizkigun, bereziki Berlin. Bidaian Galiziako lagun batzuk egin genituen, eta ia bidaia osoa elkarrekin egin genuen, baina haiek Berlinera joan beharrean Veneziara joan ziren.

### Gorka

Hogei urte ditut eta nik iaz egin nuen nire lehenengo bidaia lagun batekin. Londresera joan ginen ingelesa ikasteko asmoz, eta uda osoa pasatu genuen bertan. Aldez aurretik, lana topatu genuen biok; nik taberna batean egin nuen lan, eta nire laguna umezain aritu zen. Ez genuen tarte handirik izan elkar ikusteko, baina batzuetan elkartzen ginen. Oso esperientzia ona izan zen biontzat, eta ingelesa dezente ikasi genuen.

Ez dizuet nire izena eman! Gorka naiz.